

# SANANTOLINAK 2023

IRAILAREN 1ETIK 8RA

[ LEKEITIO ]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO **HITZA**

AUTOS BERRITXU

AUKERAKO KOTXEAK

www.autosberritxu.com

Erribera auzoa, 13 behea
94-613 99 90 · BERRIATUA

Ondo pasa san antolinak!




# SANANTOLINAK 2023

[ LEKEITIO ]

IRAILAREN 1ETIK 8RA

Jaietan ADI!
**Urtero modura, sanantolinen argazki galeria eta bideoak** egongo dira HITZAren webgunean.

**Argitaratzailea:** Lea-Artibaialdeko Hedabideak
**Helbidea:**
**Markina-Xemein**
Arretxinaga kalea 1
tel.: 94-684 44 36 • lh@hitza.eus
**Gernika-Lumo**
Elbira Iturri kalea z/g
tel.: 94-627 10 85 • busturialdea@hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

DOAKO ARGITALPENA

**www.geureanbai.eus**

**Azaleko argazkia:**
Antzar-jokoko tiratzaileak.
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko **HITZA**

**Testuak:**
**11barri.eus** • Mikel Santiso Urkiza • Lekittoko Mugimendu Feminista • Lekeitioko udala.

**Diseinua eta maketazioa:**
**11barri.eus** • Eli Azpiazu Armaolea

**Publizitatea:**
**HITZA** • Maribi Fernandez Zabala

**Argazkiak:**
Mikel Reina Barros eta
Eider Mugartegi Urizarbarrena
[ Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA ], Alejandra Goikoetxea, Txosna Batzordea eta Lekittoko Mugimendu Feminista.

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!













Egitaraua

## abuztuak 31, eguena

• **10:00.**
PLAZAREN
APAINKETA
**Garraitz TT**
taldearen eskutik.





## irailak 1, barikua

*San Antolin bezpera*
*Bajada eguna*

• **12:00.**
BURUHANDIAK ETA
DON TERENTZIO, DOÑA TOMASA, JUANA PARLA eta ANTERO kalerik-kale, **Itxaropena** txistulari taldearekin.

• **19:30.**
36. KUADRILEN BAJADA,
**Lekitto musika bandak** eta **Aittitta Makurra txarangak** animatuta.

• **Bajadaren ostean.**
TXOSNEN IREKIERA.
Ant.: **Txosna batzordea**

• **20:00.**
ANGELUSA, hasiera emateko San Antolinei; KANPAI JOTEA, TXUPINAZOA eta ANTEROREN BAJADA.
**Asier Uskola**, 20 urtez San Pedro jaietan kaxarranka dantzatzearen arduradunak, botako du txupinazoa.



**Oihan Vega**ren
MUSIKA EMANALDIA plazan, bajadaren amaiera animatu, sariak banatu eta gaua girotzeko.
Sari banaketa Ana Goitiak aurkeztuta.

• **22:30.**
SUZKO ZEZENA plazan.

• **23:00.**
DJ SAIOA eskolapean.
**DJ Fonoplay.**

• **23:30.**
ERROMERIA
plazan.
**Zirkinik Bez.**

• **22:00-02:00.**
**PUNTU MOREA.**
ERASO SEXISTEN ARRETA GUNEA
udaletxeko eskailera aurrean.

info +: 39. orrialdean

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

1958tik
ZARAUTZ
ALTZARIAK



• Era guztietako altzariak
• Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
• Diseinu eta aurrekontuak konpromisorik gabe

94 684 06 53
94 625 85 78
LEKEITIO • GERNIKA

mantxua
taberna jatetxea • bar restaurante
LEKEITIO
Beheko kalea, 24 • 94-465 33 49

ZUMARAN
arrain eta itsaski freskuak
ONDO PASA JAIAK
Abaroa, 9 behea | Antiaguako ama, 1
94 684 04 29 | 94 684 27 68
LEKEITIO

Zakari Igeltsaritza
Eraikuntza lanak • Gremio koordinaketa
Pietate kalea, 30 LEKEITIO
670 632 680

jai zoriontsuak!
DASTALEKUA
KAKOR
GOZOTEGIA
Abaroa, 41- LEKEITIO_ Tel.: 94 684 25 28

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
JUAN IGLESIAS
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!
Agirre Solarte, 5-behea LEKEITIO
94 684 27 37 / 649 509 710

ASIER USKOLA Txupineroa.

# «Lekeitiok badauka izaera berezi bat desberdin egiten gaituena»



20 urteren ostean Kaxarranka dantzantzeko errelеboa eman du aurten Asier Uskola lekeitiarrak. Bere izango dira jai hasierako txupina botatzeko ardura eta ohorea.

**Zelan jaso zenuen txupinero izateko albistea?**
Sorpresa handiz. Jai batzordean nire izena atera zela jakinda, sorpresa handia eta poza. Ez nuen espero. Oso gustora eta pozarren.

**Txupina botatzean ze esango zenioek Lekeitioko herriari?**
San Pedroetan jaso nuen herriaren berotasuna eskertuko nuke lehenengo. Gero, herriak daukan nortasuna mantentzeko aldarria egingo nuke. Herriak badauka izaera berezi bat, desberdin egiten gaituena.

**Gogoratzen duzu Kaxarranka dantzatu zenueneko lehen aldia?**
Bai. Oso oso urduri egon nintzen. Gaztea nintzen eta ardura handia neukan. Aurreko egunetan ere oso urduri egon nintzen, eta egunean bertan, urduritasuna zela eta musikarik ere ez nuen entzuten. Intuizioz aritu nintzen dantza bukatzeko.

**Eta aurten azkena. Zelan bizi izan duzu?**
Azken urteetan urdurien egon naizen aldia izan da. Momentu berezia zen. Zoragarria izan zen. Herriaren aldetik hainbeste maitasun jaso nuen. Oso hunkigarria izan zen.

Poztasun handikoa. Ezin zen hura baino despedida hobeagorik imaginatu.

**Iaz lehen aldiz emakume batek (Ane Maruri) dantzatu zuen Kaxarranka. Zelan definituko zenuke une sinboliko hura?**
Berdintasunerako beste urrats bat izan zen, eta hesiren bat bazegoen ere, hau ere bota zen. Aurrera begira ere erabaki bat hartzerakoan lasaitasuna ematen du horrek.

**San Pedro egunean kaxa gainera igo gabe, zelan biziko duzu hurrengo San Pedro eguna?**
Inkognita bat izango dira. 20 urtez era batera bizi izan ditut, eta desberdina izango da. Orain arte era batera antolatzen nuen eguna. Suposatzen dut inbidia punto bat egongo dela, lasaitasuna ere bai... ohorea izan arren ardura handia ere bada eta. Seguru nago datozenek ere ondo egingo dutela. Kaxarranka asko maite du herriak eta ondo joango da.

eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA

PAPERTEGIA

Gora san antolin!

Artolaba, 4 behea
94 624 38 32
LEKEITIO

ONDO
PASA
BAINA
EZ PASA

OGITEGIA
PLAZA

*Ondo pasa jaiak!*

ATXABAL, 4 LEKEITIO
94 684 02 07

LAIKOR
ALTZARIAK
AROZTEGIA

• Sukaldeko altzariak eta elektrogailuak
• PVC, aluminio eta egurrezko leihoak
• Sarrera eta barruko ateak

ZERBITZU BERRIA
ALTZARIAK & SUKALDEAK

94 684 2881
609 482 958
laikor43@gmail.com
P. Abaroa • LEKEITIO



IZAYFER
AHOLKULARITZA

• Fiskal
• Laborala
• Kontularitza
• Erretiroak
• Errenta
• Aseguroak

Agirre Solarte, 11 • LEKEITIO
tel.: 94 684 25 85 / faxa: 94 684 31 66

HATOR
FRANTSESA

Ondo
pasa
jaiak!



EROSKI city
OKAMIKA

*Zure eguneroko denda*
HARATEGIA / URDAITEGIA
FRUTERIA / IZOZTUAK
JAI ZORIONTSUAK

Santa Katalina 2 _ 94 684 04 94
Mª Diaz de Haro 4 _ 94 624 36 71
LEKEITIO

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

Egitaraua →

Txosna batzordea +

# irailak 2, zapatua

## San Antolin Eguna
## Alkondara zuri eguna
## Amnistia eguna

**• 09:30.**
AKORDEOI-JOLEEN KALEJIRA.

**• 11:00.**
22. TIRAGOMA TXAPELKETA
Limoneroan.
Parte hartzeko izena ematea: 10:30ean.
**Aittitta Txiki elkartea**ren eskutik.

**• 11:45.**
AGINTARIEN PROZESIOA.
Lekeitioko alkate eta zinegotzi jaun-andreak udaletxetik eleizaraino joango dira, **Lekitto musika banda**k lagunduta.

**• 12:00.**
MEZA NAGUSIA,
**Elizako koruak** abestuta.

**• 12:00.**
BIODANTZA ETA BODY-PAINTING
Parkean. Soinean zikintzeko arropa eta aldatzeko erropak ekarri.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 13:00.**
**Lekitto musika banda**ren
KONTZERTUA plazan.
Zuzendaria: **Urtzi Iriondo**.

**• 17:15.**
*V. Caixabank Masters*
ESKU PELOTA TORNEOA
Santi Brouard frontoian.

**• 17:30.**
ALTXORRAREN BILA.
6-8 urtekoak gurasoak lagunduta.
Izen ematea: 17:00.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 18:00.**
XVIII. TXAPEL JAURTIKETA
Uribarren kalean.
Parte hartzeko izena ematea: 17:30ean.
**Aittitta Txiki elkartea**ren eskutik.

**• 18:00.**
*Jubenilen San Antolin trofeoa*
FUTBOL PARTIDUAK. Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian.
Lekeitio F.T- Ermua Blues.

**• 19:30.**
OMENALDIA XENKI ETA MURGI GOGOAN. 51. urteurrena.
Ant.: **Txosna Batzordea**.

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA, parkean.
**Makusai** musika taldea.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 20:00.**
BERTSOLARIAK Arranegin,
BALKOITIK BALKOIRA:
**Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal** eta **Saioa Alkaiza.**

**• 21:15.**
KONTZERTUA PLAZAN
**Liher**.

**• Gauean.**
ESKAINTZA MUSIKALA portuan.
Ant.: **Txosna batzordea**.
**DJ Amataki eta lagunak**
**Nahianovo & Twink Melody**
**Yakintza**

**• 23:00.**
SU ARTIFIZIALAK
**Zaragozana** piroteknaren eskutik.

**• Ondoren.**
SUZKO ZEZENA.

**• 23:30.**
KONTZERTUA plazan.
**Su ta gar**.

**• 01:00.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Ztart**.

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

ZEDARRI
altzariak+koltxoidenda
LIKIDAZIOA



Logelak · Egongelak · Auxiliarrak · Sofak · Koltxoiak...

Arropain auzoa, 16 • ISPASTER
zedarri-ispaster@hotmail.com
94-684 13 63 • 659 53 52 70

Willow´s Tavern
Biker Bar



(PUERTO)
willowstaverns@gmail.com
Lekeitio
☎ 94 624 3570



IGELTSEROTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK
UGARTEBURU, C.B.
Zumatzeta kalea 2 - 1. D · 48280 LEKEITIO
Tel. 605 71 72 74

NAROA GARAMENDI ◉ Arraunlaria.

# «Kontxa irabaztea da nire ametsa. Horren gainetik ez dago besterik»



**Zelakoa izan da Naroa Garamendiren bilakaera arraunean?**
Alde polita eta iluna izan ditu bilakaerak. 2018an hasi nintzen Isuntzan batel eta trainerlietan, eta udan Lea Artibaiko trainerugaz ibiltzeko aukera izan nuen, lan aukera betangatik utzi behar izan nuenera arte. Herrian entzun beharreko komentario eta zurrumurruek ekarri zuten alde iluna, arrauna uzteko erabakia hartzeraino. 2019ko udan Ondarroara joan nintzen, eta han egin ditut lau urte. Oso eskertuta nago beraiei, eta hori izan zen 2022an EuskoTrenetik jaso nuen eskaintzari ezetz esateko arrazoia, zerbait zor nien. Aurten egin dut jauzia, Donostiarrara hain zuzen, ikasketak ere Tolosan egiten ditudala baliatuz.

**Aurten EuskoTren Ligan ari zara. Zein da gorengo mailan aritzearen desberdintasun nagusia?**
Aldaketa handiena arraunlarion konpromisoa da. Maila oso handia da, exijentzia handiagokoa. Asko harritu nau aurredenboraldian 30 arraunlari egotea. Lekua irabazi behar!

**Zelan deskribatuko zenuke goi mailan banderak irabaztearen sentsazioa?**
Ez dago alde askorik. Ondarroarekin azken estropadan ere irabazi genuen ETE ligan eta polita izan zen. Bereziagoa beharbada Donostiakoa izan da aurten: debuta, kide izandakoak ere bertan, etxekoak, aita eta ama...

**Ligaren ostean dator urteko zita bereziena: Kontxa. Zein dira aurten Donostiarraren helburua eta zurea?**
Indar handiarekin gaude. Liga estu joan da eta gure helburua da Kontxa irabaztea. Urte guztiko lehia estua izan da eta horregatik indartsu gaude Kontxara begira. Helbur pertsonal nagusia EuskoTren ligan lehiatu eta bandera bat irabaztea izan da; bete dut. Orain, arraun munduko helburu nagusia lortzea da asmoa, Kontxa irabaztea.

**Uste duzu hainbeste aipatzen diren berdintasunerako urratsak benetan ari direla ematen arraun munduan?**
Gutxika gutxika bada ere ari dira eta ari gara urratsak ematen. Horrela joan behar gara, apurka-apurka: talde kopurua handitu, sari ekonomikoak... Tartea handia den arren apurka goaz txikitzen.

**Zein da zure ametsa arraun munduan?**
Nirea eta esango nuke arraunlari guztiena, Kontxa irabaztea, duda barik. Horren gainetik ez dago beste ametsik.

**Aipatu arraunean bizi izan dituzun unerik politena edo bereziena eta gogorrena.**
Gogorrena, Orioko estropadako deskalifikazioa. Oso oso gogorra izan zen. Unerik politenak: Ondarruko etapan egindako lagunak eta aurtengo bi banderak. ◉

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!


















Egitaraua

txosna batzordea

# irailak 3, domeka

## *Kamiseta eguna (kuadrilakoa, erreibindikatiboa...)*

**• 10:00etatik aurrera.**
27. PAELLA TXAPELKETA plazan.
Ant.: **Jai batzordea**.

**•10:00.**
BURUHAUNDIAK EGITEKO TAILERRA.
Parkean.
Adina: 5 urtetik aurrera.
izen emateko azken eguna **abuztuak 31, Eskolapeko farmazian.**
12 euroko kostua dauka eta buruhandia norberarentzat da.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 10:30.**
FUTBOLA: *Kadeteen San Antolin trofeoa*.
Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian (triangularra): Lekeitio F.T- Santutxu- Sestao River.



**• 11:00.**
GAZTE AKUATLOIA
Abadeen moilan.
Ant.: **Garraitz TT**.

**• 12:30.**
TXISTULARIEN KONTZERTU IBILTARIA,
Isidro Salinas enparantzan hasi eta ondoren eskolapean.
**Itxaropena** txistulari taldea.

**• 13:30.**
PAELLEN AURKEZPENA eta SARI BANAKETA plazako kioskoan.

**• 15:00.**
HERRI BAZKARIA.
Paella eguna.
Eguraldi onarekin arbolapean.

**•17:00.**
SORMEN TAILERRAK.
• Sormen eta eraikuntza tailerra.
• Buruhandientzat puxikak. Parkean.
Ant.: **Txosna batzordea**.



**• 18:00.**
FUTBOLA: *Nagusien San Antolin futbol trofeoa*.
Kepa Naberan Kaltzakorta futbol zelaian: Lekeitio F.T.- Artibai.

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA, parkean.
**Westfalia Txou System** eta **Marmara** musika taldeak.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 21:00.**
KONTZERTUA plazan.
**Mariachi Imperial.**

**• 23:00.**
KONTZERTUA plazan. **Gozategi**.





Uribarren Abaroa
fundazioa
Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es

94-684 00 55 • Faxa: 94-684 07 58
residencia@uribarren.es
Iñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48280 LEKEITIO



## LEKEITIOKO TURISMO BULEGOA

# «Kanpoko jende asko etortzen da Lekeitioko kulturan interesatuta»

**Zelakoa izaten da uda Lekeitioko Turismo Bulegoan?**
Uztailetik Abuzturako tartean, udalerriak, biztanleria hazkunde nabarmena jasotzen du. Asko, udalerriaren zerbitzuen eske etortzen dira; beste batzuk, eskualdean zeharreko ibilbideei buruzko informazioa jasotzera; eta baita Lekeitio inguruko leku gomendagarriak zeintzuk diren galdetzera. Euskal Herritik hainbat txangozale etortzen dira, aurretik aipatutako eskualdeko ibilbideei buruz galdezka. Gainera, asteko egun guztietan, 09:00etatik 19:00ak arte irekita dugunez bulegoa, munduko leku askotatik (Amerikako Estatu Batuak, Europatik, Espainiar estatutik...) etortzen zaizkigu herriari buruzko dudak galdezka:merkatuak, interes turistikodun tokiak...

**Duela urtebete, gutxi gorabehera, zabaldu zen Turismo Bulego berria. Zein abantaila dituzue orain edo zertan irabazi duzue?**
Esango genuke bulegoaren kokapena, gunearen zabaltasuna eta jasotzen duen argitasuna direla abantaila nagusietako batzuk.

**Aldea ahal dago Sanantolinetako egunetan Turismo Bulegora datozen bisitariekin?**
Bai, aldea dago San Antolinetako egunetan. Asko nabaritzen da Abuztutik Irailerako aldaketa bisitarien artean. Jai egun hauetan, kanpotik datorren jende gehiena ez da etortzen jaien inguruan galdezka, baizik eta herrian bisitatu nahi duten lekuei buruz informatzera. Egia da, kultura aldetik (irrintziak, musika, dantza...) interesa daukaten bisitariek irrikaz hartzen dutela jai giroa.




**Zer eskatzen du gehien Lekeitioko Turismo Bulegora datorrenak?**
Orokorrean Lekeitio bisitatu. Bai isla, Itsasargia, alde zaharra, eliza... Bestalde, Europatik etortzen den jendeak gastronomiaren inguruan jakintasuna adierazten dute. Eta aurretik aipatu bezala, Euskal Herritik etortzen den jende asko, eskualdeko ibilbideen inguruan informatzera etortzen dira.

**Paraje ederrak ez ezik, eskaintza kultural zabala ere badauka Lekeitiok. Hori ere bilatuko dute bisitariek, ezta?**
Kanpoko jende asko dago Lekeitioko kulturan interesatuta, eta gehienetan kultura ekintza horiek daudela jakinda etortzen da jendea.

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!
















Egitaraua →

Txosna Batzordea +

# irailak 4, astelehena
## Antzar bezpera

• **10:00-13:30.**
ANTZAR EGUNEKO JAIAN PARTE HARTZEKO IZENA EMATEA
Kultur Etxeko Azkue Aretoan.

• **12:00.**
HERRI KIROLAK.
5 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

Ondoren, UREZKO ZEZENA
**Dzanga piragua taldea**ren eskutik.
Izen ematea; goizeko 11:00etan parkean.
Ant.: **Txosna Batzordea.**

• **17:00.**
ESKU PELOTA:
*Zapaterito pelota txapelketaren finalak.*
Zapaterito frontoian.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

• **Ostean.**
ESKU PELOTA:
*Emakumezko afizionatuen binakako plaza libre desafioa.*
Zapaterito frontoian.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

• **17:00.**
PIRAGUA
**Dzanga Piragua taldea**ren eskutik.
11 urtetik beherakoak nagusi batek lagunduta.
Izen ematea; 16:30ean parkean.
Ant.: **Txosna Batzordea.**





• **17:30.**
TXANGO GIDATUA MENDIRA
*Lumentza historian zehar.*
Azalpen historikoekin.
Ant.:
**Txosna Batzordea.**

• **19:00.**
ATUN ERREA.
Ant.: **Txosna Batzordea.**

• **20:00.**
FAROLAPEKUA parkean.
KONTZERTUA.
**Gu ta gitarrak.**
Ant.:
**Txosna Batzordea.**

• **21:00.**
CORREFOC FESTA
Sabino Aranatik plazara.
Ant.:
**Lekittoko deabruak.**



• **21:30.**
31. PLAY BACKA
plazan.
Ant.:
**Markesen alabak.**

TXAIFER
ERAIKUNTZAK, S.L.
Teilatuak • Fatxadak • Etxe barruko konponketak •
Igeltseritzako lanak orokorrean.
605 71 18 84 | txaifer@yahoo.es
Letraukua 1-behea LEKEITIO

Gazpatxo, salmorejo, montaditoak...
Pintxoak eta razioak
Ondo pasa jaixak!
Triana
658746498
Apalloa 22
LEKEITIO

Torrealday
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE
AHOLKULARITZA
www.torrealday.es/eu
GERNIKA • 94 627 00 36
LEKEITIO • 94 684 26 75
ONDARROA • 94 683 29 75

Talako
Aroztegia S.l.



ATEAK • LEIHOAK • EGUR ETA LAMINATU ZORUAK •
TOLDOAK PERSIANAK • AROZTEGIKO LANAK OROKORREAN
Eskatu aurrekontua konpromiso barik!
denda: 94-684 13 01 (P. Abaroa etorbidea, 41C)
tailerra: 94-624 35 74 (P. Abaroa etorbidea, 55)
talakoaroztegia@gmail.com • LEKEITIO
SCHÜCO
VISIÓN +

# ERASOEN AURREAN, EKIN AUTODEFENTSA FEMINISTARI!




Mugimendu Feminista Herri Mugimenduko txosnaren parte izango da. Gure helburua eraso gabeko gunea bermatzea izango da.

Jaietan, dena libre denaren aitzakiapean, eraso sexisten ofentsiba nabaria da: begiradak, irainak, gutxiespenak, bortxaketak, erailketak... Jaiek sortzen duten euforia eta jaietan "dena da libre" premisa batu ezkero, errespetuan oinarritzen ez diren harremanak indartzea dakar. Badirudi jaietan gertatzen denak ez digula eguneroko bizimoduan eragiten baina jaiak ez dira eguneroko errutinatik kanpo kokatzen, ez daude jendarte errealitatetik kanpo.

Gure zeregina da eraso guztiei erantzutea. Inposatu diguten biktima paper pasibotik ateratzen garenean eta geure burua defendatzen dugunean, zoro, histerikak edo feminaziak garela entzun behar izaten dugu. Erantzuten badugu, zalantzan jartzen gaituzte. Sistemari indarkeria arlo fisikoarekin identifikatzea interesatzen zaio, horrela errazagoa baita errudun bakarra bilatzea eta arazo pertsonala delako ideia saltzea, era horretan emakumea bakartu eta sistema heteropatrarkal eta kapitalista hau betikotzeko.

Hori dela-eta, autodefentsa feministaren balioa azpimarratu nahi dugu. Erasoen aurrean erantzun bat ematea zilegia delako. Gure gorputzak, autoestima eta bizitzak dira jokoan daudenak. Jaietan ere, autodefentsa feminista!

Egoera hau aldatzeko lan asko dugu egiteko oraindik, emakumeok kalean egotea ezinbestekoa da erasotzaileei planto egin eta egungo jendartea eraldatzeko. Bide horretan, bi dira udazkenean aurreikusten ditugun ekintzak: batetik, Azaroaren 30ean Greba Feminsita Orokorra dugu, kalera aterako gara zaintza sistema publiko eta komunitario bat aldarrikatzen. Bestetik, udaberrian hasitako Andraetxeko prozesuari bukaera emango diogu Zirt edo Zart eginez.

Ez dira gutxi aurretik ditugun zereginak, ekin lanari eta ez ahaztu, erasoen aurrean autodefentsa feminista!

**GORA BORROKA FEMINISTA!**

**LEKITTOKO MUGIMENDU FEMINISTIA**















ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!



# **irailak 5**, martitzena
## *Antzar eguna*

• **10:00.**
**Lekitto musika bandaren** KALEJIRA.

• **11:00.**
BURUHANDIAK eta DON TERENTZIO, DOÑA TOMASA, JUANA PARLA eta ANTERO KALERIK KALE **Itxaropena** txistulari taldearekin.

• **11:30-14:30.**
UMEEN PARKEA Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian.



• **11:45.**
**Itxaropena** TXISTULARIEN eta ANTZAR BATZORDEAREN KALEJIRA Kioskoraino.

• **12:00.**
ZOZKETA PLAZAN, antzarren jaian parte hartuko duten txalupei zenbakia emateko.



• **13:00.**
TXISTULARIEN BATZEA Eskolapean, **Itxaropena txistularien** gidaritzapean.
Txistua jo nahi daben guztia etortzera gonbidatzen da.

• **16:00-20:00.**
UMEEN PARKEA Juan Bautista Eguzkitza enparantzan eta plaza gorrian.



• **16:00.**
ANTZARREN JAIA portuan.

• **Gero.**
MASTA-PUNTAKOA.

• **18:30.**
*V. CaixaBank Masters*
ESKU PELOTA TORNEOA Santi Brouard frontoian.

• **19:30.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Bull**.

• **22:00.**
ERROMERIA plazan.
**Oxabi**.

• **01:00.**
DJ SAIOA plazan.
**DJ Elepunto**.

**•22:00-02:00.**
**PUNTU MOREA.**
ERASO SEXISTEN ARRETA GUNEA udaletxeko eskailera aurrean.

**info +: 39. orrialdean**


RAKEL BILBAO
ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA
www.rakelbilbao.com
94-656 25 15 • 679 102 394
Santa Katalina, 2 - LEKEITIO
info@rakelbilbao.com


Prim
erretegia
Txatxo kaia - LEKEITIO
94 675 4832 / asadorprimlekeitio@gmail.com


NikolaSesma
PINTURA ETA
DEKORAZIO LANAK
Lakatuak eta
bernizatuak pistolaz,
estukoak,
pintura plastikoa...
Enpapelatu eta
behegaineen estalketa
Narea, 15 - 2 ezk. Lekeitio
n.sesma@euskalnet.net • nikosesma@gmail.com
Tel. 656 78 76 11


ITURGINTZA | GALDARAK | GASA | ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Maguregi
iturgintza
DENDA BERRIA: Buenabentura Zapirain, 3 behea
TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • LEKEITIO
656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es

# Inkesta

## ZER ESANGO ZENIOKE HERRIARI SAN ANTOLIN JAIEN HASIERAN UDALETXEKO BALKOITIK?



### Roberto Serrano Corral

«Jaiez gozatzeko esango nieke, batez ere hori, gozatzeko. Errespetuan oinarrituta eta jaiez gozatzeko».



### Marcelina Aurrekoetxea Beobide

«Ondo pasatzeko, bakean, ondo pasatzeko. Gozatu, batak bestea errespetatu eta ondo pasa denok».



### Baro Kasumay

«Jaiak marabilla bat direla eta ondo-ondo pasatzeko. Eta herria zaintzeko. Jaietan egon arren herria zaintzea ez ahazteko».



### Arantza Mendia Eiguren

«Ondo pasatzeko baina buruarekin ibiltzeko esango nieke. Eta denok gustora ibiltzeko berdintasunean, injustizia barik eta errespetuaz jokatzeko jaietan ere».



### Nerea Erkiaga Goikoetxea

«Ondo pasa zahar, gazte, trans, lesbiana, gay... denok, ondo-ondo pasa, herrittarrak eta albokoak zainduta. Eta gogoan izan herrian ez daudenak eta egon ezin dutenak».



### Iñaki Malaxetxebarria Intxausti

«Ondo pasa eta aprobetxatu, egun gutxi dira eta! Problema batzuk ahazteko, baina ez guztiak. Eta hurrengo urtean Liher eta Pototo herrian egotea».

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!




LUMENTZA
GASTRO BAR

94-684 15 01
www.lumentza.site
B. Zapirain, 3 LEKEITIO

Igeltsu eta sabaien apainketa · Pladurrezko tabikeak



Lucas

Paskual Abaroa etorbidea, 40 behea | 94-465 00 58 | 685 79 36 96 | LEKEITIO



OTOIO taberna

Pintxoak, tapak, bokatak...
662 26 30 24
Santa Katalina 1 behea, LEKEITIO

www.inmobiliarialopez.net

INMOBILIARIA LOPEZ

Pili López Arritola

Apalloa kalea, 22
94 624 37 77
689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48280 LEKEITIO

lekeitiarra
funeraria • beilatokia



Gautaeguneko zerbitzua

94 684 1628
Sabino Arana 10 behea • 48280 LEKEITIO

# irailak 6, eguaztena
## *Umeen Eguna*

• **11:00-14:00.**
UMEEN PARKEA plazan.

• **12:00.**
UMEENTZAKO MASTA-PUNTAKOA Abedeen moilan.
Izen ematea 11:00etan.

• **16:30.**
BURUHANDIEN KALEJIRA
Parketik plazara jaitsiera.
**17:00.**
ERRALDOIEN KONPARTSAREKIN KALEJIRA.
**18:30.**
Parkera igoera kalejiran.
Ant.:
**Txosna Batzordea**.



• **17:00.**
MARKINA-XEMEIN ETA LEKEITIOKO BURUHAUNDI ETA ERRALDOIEN TOPAKETA ETA KALEJIRA plazan.
**Itxaropena txistulariekin eta dultzaineroekin.**
Animatu etxean dituzuen erraldoi eta buruhandiak ekartzera!

• **18:30.**
ZIRKO TAILERRA UMEENTZAT plazan.

• **20:00.**
FAROLAPEKUA parkean.
KONTZERTUA:
**Ertzetik.**
Ant.:
**Txosna Batzordea**.




• **19:30.**
UMEENTZAKO IKUSKIZUNA plazan.
*Aurkitu gabeko altxorra*.
**Zirika Zirkus**en eskutik.

• **21:00.**
ANTZAR JAIKO SARI BANAKETA plazan.

• **22:00.**
SUZKO ZEZENA plazan.



Lekeitioko Herri Eskolak
Haurreskola / Eskola / Institutua




EGIGUREN ERAIKUNTZAK, S.L.
INDUSKETAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK
EGIGUREN
ERAIKUNTZAK S.L.
Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94 684 00 10

LEIHOPE
taberna



661 89 50 90
Abaroa Etorb., 24 - LEKEITIO

Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.
Santa Katalina, 1A
Tel. 94 684 08 52
Faxa: 94 684 26 78
MOTA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK



## JESUS MARI LAKA

Antzar Jokoko tiratzaileen arduraduna.

# «Harrapatzaileak antzarra heltzen duen momentua da tentsoena. Hor hasten da dena»

**16 urterekin hasi zinen eta 40 baino gehiago daramatzazu. Nolakoa izan da bilakaera?**
Herri kirol munduan nenbilen eta handik gerturatu nintzen. 2006az geroztik naiz arduraduna, hain justu lehen aldiz Antzartek erabili zen urte beretik. Urte hauetan aldaketa asko egon dira. Jaia bera ere asko hazi da. Antzar naturalak eta antzartek, soka, neskek ere parte hartzea... aldaketak onerako izan dira. Hala ere jokoaren izatea mantentzen da oraindik.

**Ardura handia daukazue ezta?**
Bai, horrela sentitzen dut. Eta horrek tentsioa ere eragiten dit. Goizeko 09:00etarako jaisten gara guztia antolatzera. Gure lana behar modura ez bada ateratzen jokoa ez doa aurrera. Iaz 101 potin egon ziren, atera kontuak zenbat partehartzaile eta beste zenbat ikusle. Herri guztia urte osoan zain egoten den unea da, eta gure lana ezinbestekoa da. Ardura handia daukagu. Harrapatzaileak antzarra hartzen duen unea da tentsoena, hor hasten da dena: harrapatzailea uretan, potina aldentzen, gure nekea...

**Nola antolatzen zarete?**
18 tiratzaile eta 5 ordezko aritzen dira, txandaka, eta ni koordinatzaile. Ez da bat ere erraza halako pisuak hainbestetan mugitzea. Iazko beroarekin edo euriarekin jardutea oso gogorra da. Inguruko herrietako kideekin osatzen dugu tiratzaile taldea.

**Ba al dago erreleborik?**
Ez dut ikusten erreleborik dagoenik. Gazteak ez ditut ikusten tiratzaile aritzeko asmoarekin. Eta Antzar Jokoa nahi badugu, ezinbestekoa da erreleboa etortzea.

**Gorabeherak ere gertatuko ziren urte guzti hauetan.**
Duela 30 bat urte espartzuzkoa zen soka hautsi zitzaigun, beraz, bertan behera laga behar jokoa. Orain, polipropilenozko soka ipintzen dugu eta bi urterik behin aldatzen dugu, sustoak saihesteko. 2001ean esaterako, 530 altzada egin ziren, errekorra izan zen. Baina tiratzaileok ere halako nekea jasan genuen.

**Aldaketen artean portuko berrantolaketa ere etorri da.**
Bai. Iaz egin genuen lehen aldiz portua berrantolaturik. Soka, pantalanetako poste baten gainean dagoen euskarri berezi batetik pasa genuen itsasontzitik beharrean. Eskalatzaile donostiar batzuk lotu behar izan zuten soka, behar modura geratzeko. Ondo atera zen guztia, nahiz eta denok izan urduritasun puntu hori.

**Guztiei berdin tiratzen ez diezuela esaten duteni, zer?**
Guk denentzako egiten dugu berdin, lehiaketa bat da, beraz, denei berdin. Semeari ere altxatu izan diot antzarra denboraz ez iristearren, pentsa.

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!












Egitaraua

# **irailak 7**, eguena

## *Kuadrila eguna*

***Duchenne* gaitza**ren kontzientziazio eguna: etorri **arropa gorriren** batekin soinean.

**• 11:00.**
BURUHANDIAK eta DON TERENTZIO, DOÑA TOMASA, JUANA PARLA eta ANTERO kalerik kale. **Itxaropena** txistulari taldearekin.



**• 12:00.**
JOLASAK.
Adina: 4 urtetik gorakoentzat.
- Jolas librea (mahai jolasak...).
- Tapoiekin eskulanak.

TIROLINA.
Adin guztientzat.
**Leaktibai**ren eskutik.
Ant.: **Txosna Batzordea.**

**• 18:00.**
HERRI KIROLEN TAILERRAK plazan.

**• 19:00.**
HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA plazan.

**• 17:00.**
UMETLOIA.
**Amandarri Triatloi taldea**ren eskutik.
13 urtera arte.
Izen ematea 11:00etan parkeko gunean.
Ant.:
**Txosna Batzordea**.



**• 17:00.**
HANKAPALO IKASTAROA.
Adin guztientzat.
Ant.:
**Txosna Batzordea**.

**• 18:00.**
TXOKOLATEA.
Ant.: **Txosna Batzordea**.

**• 20:00.**
**Kantuzaleak** kotiloi jantzita Konpainiako eliza aurrean.
Ant.: **Zaletxuak Elkartea**.

**• 20:00.**
FAROLAPEKUA parkean.
UMORE GAUA:
**Ana Goitia.**
**Iker Plazaola.**
**Julen Portillo.**
**Maria Blanco.**
Ant.: **Txosna Batzordea**.



* Jai batzordea:
***Jantzi Urte barri off-Kotiloia mozorroarekin.***
2023ko bajada egunean irabazle suertatzen den mozorroa, 2024an kuadrila eguneko gai aukeratua izango da.




Eixun dzanga festara!

lekeitioko
udala

# MIKEL GABIOLA LENIZ

Sanantolinetako kartel lehiaketako irabazlea.

# «Lekittoko herria oso herri bizia da, nortasun handikoa»



**Nola bururatu zitzaizun halako kartela egitea?**
Ba egia esan pasadan urtean egin nuen bidaia batetik dator ideia. Hego Korean izan nintzen eta bertako Busan hirian etorri zitzaidan ideia. Kostako hiri bat da, oso argia eta distiratsua uda hasieran, eta pentsatu nuen itsaso eta distira hori Lekittorekin lotu nezakeela nolabait.

**Zer transmititu nahi izan duzu kartelarekin?**
Nire ideia kartel argi eta koloretsu bat egitea izan da. Itsaso eta zeruari garrantzi asko eman eta urdin eder hori beste kolore osagarrirekin uztartu. Helburua, bistara deigarria den kartela egitea.

**Zein teknika erabili duzu sorkuntzarako?**
Aspaldion formatu digitalean asko ari naiz sortzen eta kartel hau ere modu hortan egin dut. Askotan pasatzen zait, ideia konkreturik gabe edo intuizio argirik gabe hasten naizela marrazten. Oraingoan hasiera hasieratik izan dut argi ideia.

**Anterok, antzarrak, ikurriñak, herriak eta eraso matxisten kontrako irudiak garrantzi berezia dute kartelean. Zergatik elementu horiek?**
Nire ustez oso garrantzitsua da elementu horiek azpimarratzea. Alde batetik herrikoak, geureak diren elementuen aldarri argia egitea eta bestetik, baita indarkeria matxistaren aurkako deia egitea ere. Gaur egun gainera, alor horretan lortutako hainbat eskubide kolokan ikusten ditugun honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zait sinbolo hauek hain irudi publikoa den jaietako kartel baten parte izatea.

**Zein da zuretzat jaietako une kuttunena?**
Koadrillen bajada. Bandako kide naizenez desfilearen aurrean joaten gara festa giroa musikaz alaitzen. Oso polita iruditzen zait plazan sortzen den giroa, herrikoa.

**Jaietan hutsik ez egiteko ekitaldiren bat?**
Niri asko gustatzen zait suak ikustera joatea. Kanpoan afaltzeko hartu eta lasai lasai ikustera joan. Beraz horixe!

**Zer azpimarratuko zenuke San Antolin jaietatik eta zer uste duzu hobetu behar litzakeela?**
Nik uste dut Lekittoko herria oso herri bizia dela, nortasun handikoa. Uste dut jaietako gauzarik onena nortasun hau agerian ikustea dela, pil-pilean. Hobetu beharreko puntu bi aipatzekotan, alde batetik sortzen den zaborra eta plastikoa drastikoki gutxitu behar direla, eta bestalde, denon artean lan egin behar dugula jaietan eraso sexistak eta indarkeria matxista guztiz desagerrarazteko.
Zero tolerantzia!

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!



















# irailak 8, barikua

## Antiquako Amaren Eguna
## Koittadu Eguna

**• 09:00.**
TXISTULARIEN KALEJIRA.

**• 11:30.**
MEZA,
umeen eta aittitta-amumen omenez.

**• 12:00-14:00.**
JOLASAK.
Bizikleta, kaskoa eta aldatzeko arropa ekarri.
Ant.: **Txosna batzordea**.

**• 14:30.**
LEKEITIOKO NAGUSIEN BAZKARIA Egaña jatetxean.



**• 17:00.**
MUS TXAPELKETA
Kai Alde sozietatean.
Izena ematea 16:30ean.

**• 17:00-19:00.**
MARMO TAILERRA
Koittadurako berotzen eta ondoren, IKARA MUSIKATUAK parkean.
**Lekittoko Diabruak** taldearekin.
Ant.: **Txosna Batzordea**.

**• 21:30.**
SUZKO ZEZENA.



**• Ondoren.**
ANTERONEN EZKUTATZEA, 2023ko jaiei agurra emateko.

KOITTADUA,
**Aittitta Makurra txarangak** animatuta.

KALEJIRA,
**Aittitta Makurra txarangak** animatuta.

**• 22:30.**
KONTZERTUA plazan.
**Drunk Smille.**

**• 00:00.**
KONTZERTUA plazan.
**Dr. Palauer.**

**• Gauean.**
DJ SAIOA portuan.
DJ AKD, DJ Elepunto eta DJ ENDJ.
Ant.: **Txosna Batzordea**.

Ondo pasa jaietan!
GUZURMENDI
Arranegi, 2 • LEKEITIO • 94 624 37 25

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

**JAN DA LO**

ORDUTEGIA
Goizez astelehenetik domekara 10:00 – 15:00
Arratsaldez astelehenetik barikura 16:30 – 20:30

Atea, 6 behea LEKEITIO | Tel. **9465 60758**

OILASKO ERREAK
PRESTATUTAKO JANARIA
ARDOAK ETA TXAKOLINA
HESTEBETEAK
KROKETAK
PATATA-TORTILLA
HARAGIA TENPERATURA BAXUAN

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.
**iBETARRI**



687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus
• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)

• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

**I. Aretxaga**

Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak

Iñigo Aretxaga
Bizkaiko finka administratzailea, zk.: 808
Arranegi 11-Lekeitio
Tel./Faxa: 94-465 35 75
Sakelakoa: 656 58 03 14
iaretxaga@yahoo.es

**Ikusi**
Eraikuntza materialak



**ERAKUSKETA** • Abaroa etorbidea, 19
94 684 14 99 • LEKEITIO
**BILTEGIA** • Abaroa etorbidea, 34
94 624 38 71 • LEKEITIO
**BILTEGIA** • Okamika 1. pab • GIZABURUAGA

## KOLDO GOITIA MARKUERKIAGA

Jaiak alkate izan gabe.

# «Jaiei hasiera ematea eta Anterori ongietorria dira unerik gogokoenak»



Desberdinak izaten dira herriko jaiak lekeitiar batentzat Alkatea denean edo ez denean. Zein alde dagoen kontatuko digu Koldo Goitiak .

**Zelakoak izango dira aurten Sanantolinak zuretzat?**
Ezberdinak izango dira, ardura gutxiagorekin. Azken zortzi urteetan jai ezberdinak izan ditugu, jaiak eta *ez-jaiak*. Aurtengoak lasaiagoak espero dut.

**Zein izango da alde nabarmenena jaiak alkate moduan bizitzetik hona?**
Jaiak, jende pilaketak sortzen ditu eta dena ondo joan dadin segurtasun neurriak ezartzera derrigortuta gaude.

Profesional talde on bat daukagu Udalean, baina beti zaude *pendiente* dena ondo joan dadin. Festa egitaraua jendearen gustukoa izateak ere kezkatzen zaitu, baina beti bete dugu herriko plaza.

**Zein dira zure unerik gogokoenak herriko jaietan?**
Politena udaletxeko balkoira irteten zarenean San Antolin jaiei hasiera ematera eta Anteroni ongi etorria ematera. Baina momentu oso gogorrak ere egon dira, 2017ko Antzar Egunean emakume bat bortxatu zutenean. Ezin ahaztu goizalde hura.

**Alkate izan zaren urteetan, San Antolinetan bizi izan duzun unerik bereziena edo hunkigarriena?**
Historian geratuko den momentu bat, iazkoa, antzar jaian Antzartek bakarrik erabili zenekoa. Urteetan ibili gara erabaki horren alde.

**Zein da zure plana aurtengo Sanantolinetarako?**
Betiko lez, kalean ibiltzea. Alkate bezala izan ditudan ardurak albo batera laga eta beste era batera disfrutatuko dut.

> «Bisitari bati jaietako zerbait gomendatzekotan, Antzar Eguna gomendatuko nioke, zalantza barik».

**Zer eskatuko zenieke herrikideei jaietan?**
Gozatzea, erantzukizunez eta ingurukoarekiko errespetuz. Nola ez, 0 tolerantzia edozein motatako erasoei.

**Bisitari bati, zer gomendatuko zenioke San Antolinetan?**
Antzar eguna gomendatuko nioke, zalantza barik.

GYRIA taberna
PINTXOTXUAK, TXIKITEOA eta GIRO EDERRA
AUPA ISUNTZA!
Paskual Abaroa, 14 LEKEITIO | 94 684 20 84

ETXEBARRIA
Elektrizitatea
Electricidad
· INSTALAZIOAK OROKORREAN · MANTENIMENDU LANAK ·
ATEZAIN AUTOMATIKOAK
699 852 246 • LEKEITIO • ula.etxebe@gmail.com

CONFORTAUTO.COM

ESKUONAK
AUTOKONPONKETA
*Liderrak segurtasunean, prestazioetan eta prezioan!*
- Edozein arazo mekanikoen konponketa
- Txapa eta pintura
- Hankook pneumatikoak
- Zure autoa nahi duzun tokian hartu eta utziko dizugu

Confort auto · Hankook masters
Gardotza industrialdea, 9 **BERRIATUA** 94-683 33 59 - 679 63 13 86 **eskuonak@gmail.com**

AZPITARTE autoak
• Zerbitzu azkarra!
• Berrikuspenak
• Matxura elektrikoak eta elektronikoak
• Mekanika
Okamika Industriagunea, II pabilioia 1A4. • GIZABURUAGA
**688 62 92 84 / 94 624 38 60** azpitarteautoak@gmail.com

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

# 2022KO ARGAZKIAK









GOL
SAOIRSE
tavern
gol
saoirse
94 684 06 11
Otxoa Urkiza z/b
LEKEITIO


GOITIKO
JATETXEA
KAFETEGIA
GOITIKO
Lekeitioren bihotzean
· eguneko menua
· plater konbinatuak...
· terraza
94 684 31 03
Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO


ondo pasa jaixak!
GALLO
TABERNA
Igualdegi 2-behea
LEKITXO


Beti lemean zabalik!
GALARRENA
BOKATAK, PINTXOAK ETA EDARIAK
AZPIRI KALEA (LEKEITIO, EUSKAL HERRIA)

# DENON ARDURA DA

LEKEITIOKO UDALA

## Emakumeen kontrako indarkeria denon ardura da, beraz edozein erasoren aurrean aktiboa izan behar da gure jarrera

### OKURRIDU BEZ:

- Onarpenik gabeko igurtziak eta musuak
- Komentario edo begirada kosifikatzaileak
- Astuna izatea
- Sexua izateko xantaia egitea
- **Bestelako indarkeria matxistaren adierazpenak**

### LIGATZERAKOAN ARGI IZAN:

- Inorekin ligatzen saiatu aurretik, behatu hurbiltzeko egin duzun saiakera gustatzen zaion eta jokaera harkorra duen.
- Edozein unetan EZETZ esan daiteke
- Zutaz paso egiten badute, ez zaitez astuna izan!
- Ez pentsa lagunen arteko adierazpen afektibo batek zurekin 'rolloren' bat esan nahi duenik.
- Norbaitek gu edo beste norbait molestatzen dagoela ikusten badugu, hainbat lagunekin elkar gaitezen eta esku hartu horrelakorik ez gertatzeko. **Olagarrorik gabeko guneak nahi ditugu!**

### ERASO BATEN AURREAN

- Erasotua sentitzen bazara, **erasoa da.**
- Erantzuteko modu desberdinak daude; **ZUK erabaki**.
- Ez zaitez lotsatu, **bera da lotsatu behar dena!**
- Jende gehiago egotekotan, **laguntza bilatu**. Kontaiezu zer gertatzen ari zaizun eta zer egin nahi duzun.
- Mutilak! Ez zaitezte aldamenean geratu, **erasoen konplize izateari utzi egin behar zaio**.
- Erasoren bat ikusiz gero neskarengana jo, **galdetu zer behar duen** eta haren beharrizanetara moldatu. **Beti besteak nahi duena errespetatu behar da**.
- **Ez ezazue erasorik justifikatu**, ezta alkoholaren edo drogen aitzakia erabiltzen bada ere.

### Telefono baliagarriak:

- Larrialdiak (24 ordu): 112
- Telefono bidezko laguntza edozein ordutan: 900 840 111
- Lekeitioko anbulategia: 94 603 58 60
- Udaltzaingoa: 94 684 20 00, goizeko 8etatik gaueko 10etara

### ERASORIK EZ ERANTZUNIK BARIK

LEKEITIOKO UDALEKO EMAKUME ETA BERDINTASUN BATZORDEA

**PUNTU MOREA**

Irailak 1 eta 5, 22:00etatik 02:00etara Udaletxeko eskaileren aurrean.

## Eraso sexistei erantzun! Eraso sexisten aurrean egin beharrekoa

- Pertsona bat erasotua izaten ari dela iruditzen bazaizu, harengana joan eta laguntzarik behar duen galdetu iezaiozu, zeure kabuz erabakiak hartu aurretik.
- Baietz badio edo norbait barrara badator erasoa salatzera:

1. Lehentasuna duen gauza da, beraz, salaketa jasotzen duen langileak, egiten ari dena utzi eta pertsona horri babes guztia eman eta kasu egingo dio.
2. Beharrezkoa bada, taberna barruan babesa eskainiko zaio erasotuari.
3. Arreta handiz entzun erasotuak esateko duena (azalpena, beharrak...)
4. Erasotzailearekin hitz egin eta argi utzi ez dituzuela jarrera sexistarik onartzen eta tabernatik kanporatu.
5. Bortxaketa kasuan, ahal den heinean, erasotua ez garbitzea eta ez aldatzea garrantzitsua da.
6. Indarrean dauden zerbitzuetara lagundu eta laguntza emozionala eman. Pertsonalki posible ez bada norbaitek lagunduko diola ziurtatu.

GORA LIGOTEO SANOA!



ERASO SEXISTARIK EZ!


ERKIAGA
LEKEITIO
Uribarren 6 | 48280 LEKEITIO
t. 94-407 43 99


www.egañarestaurante.com
Egaña
JATETXEA
Tel.: 94 684 0103
Antiguako ama, 2 - 48280 LEKEITIO


ANDIKO MOTOR
AUTOKONPONKETAK
Tel.: 94 684 44 92
andikomotor@gmail.com
Okamika industrialdea
1. pabilioa/2. modulua/behea
48289 GIZABURUAGA


ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUAK
ZORU-BEROGAILUA
BAINUKO
ALTZARIAK
ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK
Atea, 28 // LEKEITIO
bide-ONDO
tel./faxa: 94 624 30 33
// bide-ondo@euskalnet.net


AHK
PADI
IMQ
AKARREGI HAGIN KLINIKA
ODONTOLOGIA OROKORRA • ORTODONTZIA
• PERIODONTZIA • INPLANTEAK
Juan Jose Akarregi Loyola dokt. Kolegiatu zb. 573
Mediku estomatologoa R.S. 48C2515945
688 82 68 31 • 94-6842702
acarreguiclinicadental@gmail.com
Paskual Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. LEKEITIO

# ↓2022KO ARGAZKIAK











ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!


lekeitiokoikastola.eus

AZKUE

LEKEITIOKO IKASTOLA

biharko herritarrak hazten

94-684 09 59 • lekeitio@ikastola.eus • @RMazkueikastola • azkue.ikastola • azkueikastola




AAE

Ana Arrillaga Elkoro
Hortz Klinika

Paskual Abaroa Etorbidea, 2-behea · LEKEITIO · 94-685 00 44
info@anaarrillagaelkoro.eus · www.anaarrillagaelkoro.eus

# ↓2022KO ARGAZKIAK














DK STUDIO

BARNE DISEINUA













ZUEN ETXEA
ZUEN NEURRIRA

Dendeari kalea 44, Lekeitio 94-684 30 14
dk_lekeitio dkstudioalekeitio@yahoo.es